# Denbora-

## 1 Ezberdintasunak

*Harriketarrak* dira Iraideren marrazki bizidunik gogokoenak, eta askotan egiten ditu haiei buruzko marrazkiak. Bigarren irudiari zazpi aldaketa egin dizkio. Zein?





Erantzunak: 2.- Martinek 2.575 kilo jaso ditu, eta Pellok 2.775. Pello da, beraz, txapelduna. 4.- e. 5.- b eta c.

## 2 Harri-jasotzaileak

Hemen dira berriro Martin eta Pello euren apustuekin. Ikusi zenbat altxaldi egin dituzten harri bakoitzarekin.

Nork jaso ditu kilo gehiago?






# -pasak



## 3 Labirintoa

Labana hartu, eta txorizoa ebakitzen hasi da Xabino, ogitartekoa egiteko. Konturatu gabe, baina, txorizoak ihes egin dio. Zein bide hartu behar du txorizoa harrapatzeko?



## 4 Itzala

Oinetako berri-berriak estreinatu ditu gaur Loreak. Itzal hauetatik zein da oinetako berriena?



## 5 Bikiak

Eskubaloi partida irabazi ostean, garaikur bana eman diote talde irabazleko kideei. Bi garaikur berdinak ziren. Zein?

## Jolasa

### Iltzatu iltzea!

Ea tiro zorrotza duzun, hala ez bada gainerako jokalariek hartuko baitute laukiaren eremua, eta lurjabe nagusiak izango dira.





**1** Material askorik behar ez den jolas bat proposatuko dizuegu. Iltze handi bat eta jolasteko gogoa baino ez duzue behar. Laukiaren barruan iltzea sartzea da gakoa.

**2** Iltzearen laguntzaz, marrazkian ageri den moduko lauki bat marraztuko dugu lurrean. Kontuz ibili iltzearekin, mina hartu baitezakezue!!! Beraz, hobe helduren bati laguntza eskatzen badiozue.

**3** Jokalarien artean zotz egin ostean, lehen jaurtiketa nork egingo duen erabakiko da. Lurrean marraztutako laukiaren barruan sartu behar da iltzea.

Jokalariak iltzea sartzea lortzen badu, lerro bat marraztuko du laukian. Hala, laukiaren zati hori jokalari horrena izango da. Hurrengo jokalariak gauza bera egingo du. Laukiaren zatiak bereganatzen joatea da gakoa. Zati handiena duen jokalaria izango da irabazlea.